

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

Urtarrila-Otsaila 2016 Enero-febrero

Berriak

Soberania, langileen aurka

EAJ, PSE-EE, PP eta UPyD alderdiek esandakoa betetzen badute, baztertu egingo dute ELAk Eusko Legebiltzarrean aurkeztutako Legegintzako Herri Ekimena. Izan ere, ekimenak oraingoz soilik EH Bilduren babesa du. Herri-ekimen honen kontra dauden alderdiek ezin dute oraingoz Madrild jarri aitzakia bezala. Legegintzako Herri Ekimen hau Eusko Legebiltzarrean onartu liteke, ez dago inolako arazo legalik horretarako; Parlamentuak eskumen osoak ditu. Arazoa, beraz, ez da legalitatearena, arazoa da ez dutela nahi.

Ekimenaren kontra dauden alderdiek agerian utzi dute ez dutela borondaterik lan baldintzen hondatzeari mugarik jartzeko. Hitzek EAJk eta PSE-EEK esaten dute ez dutela babesten PPren lan erreformak dakarren prekarietatea, baina praktikan errealitatea oso bestelakoa da. Euren erantzukizun esparruetan ez diote esplotazioari mugarik jartzen.

Esperotakoa izan arren, arreta deitzen du kasu honetan (ere) ekimenaren kontra daudenen eta Confebask patronalaren jarrean kointzidentziak. Patronalak publikoki zein pribatuan nabarmentzen duenez, eurentzako "astakeria" bat da azpikontrataz aldatzen denean langileen lan jarraikortasuna bermatzen duen subrogazio eskubidea erregulatzeko. Patronalak onurak ateratzen ditu subrogazioa arautua ez dagoenean.

Administrazioek -Eusko Jaurlaritzaren beragandik hasita- benetan larria den gauza bat egiten dute. Lanak eta zerbitzuak beheraka adjudikatzen dituzte, kasu batzuetan %50eraino, aurrekontuen doikuntzak bete ahal izateko. ELAK "isilpeko murrizketa" deitzen dio horri, eta ondorio oso larriak ditu: hitzarmen kolektiboak ez betetzea eta esklabotza soldatekin 12 ordutako lanaldiak inposatzea. Bost axola zaie hau guztia.

Gero eta zabaldago dagoen errealitate bat da. Horregatik aurkeztu dugu herri-ekimena: Eusko Legebiltzarra, bere eskumenen egikaritzan, lan prekarietatea saihesteko ahal duen guztia egin dezan. Zoritxarrez ez dute nahi, nahiago dute gauzak dauden bezala uztea eta hori onartezina da. Horregatik EAJ, PSE-EE, PP eta UPD alderdiei exijitzen diegu Legegintzako Herri Ekimena onartu dezatela eta, euren erantzukizun esparruetan, enpresa piratek miseria lan baldintzak inposatu dezatela ekidin dezatela.

¿110.000 FIRMAS (ILP) A LA BASURA?



eaj
PNV



POPULARES



Unión
Progreso y
Democracia

ZUEN ERABAKIAK GURE ESKLABOTZA

DIRU PUBLIKOAREKIN AZPIKONTRATAZIOETAN ERE ENPLEGU DUINA

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

BADIRUDI EUSKO LEGEBILTZARRAK EZ DUELA ONARTUKO AZPIKONTRATA PUBLIKOETAKO LANGILEENTZAKO BALDINTZA DUINAK BERMATZEKO ELAREN LHEA

Noren alde jokatzeko dute?



Konfirmatzen ari dira susmorik okerrenak ELAK Legebiltzarrerera eraman zuten Legegintzako Herri Ekimenaren inguruan: bi urte luze igarota, legea aztertzen duen batzordearen azken bilera izan delarik, antza ez da aurrera aterako: EH Bilduren babesa baino ez du jaso.

2014ko apirilaren 3an ELAK LHEaren aldeko 109.396 sinadura eraman zituen Gasteizko Legebiltzarrerera: ekimenak besteak beste proposatzen du azpikontratutako langileentzako subrogazio eskubidea aintzat hartzea, enpresa aldatuz gero, eta lan-baldintza duinak bermatzea. ELAren ustez alderdiek honela erakusteko aukera izango lukete beren kezka langile hauek pairatzen dituzten arazo nagusiekiko; kontutan izanik alderdi horiek erabaki zutela behin zerbitsu hauek esku pribatuetan jartzea.

Alabaina, azken orduko ezustekorik ezean, EAJK, PSE-Eek, PPK eta UPyDk erabaki dute LHEaren aurka bozkatzeko. Itxuraz ez zaizkie bat ere axola ekimenaren aldeko ia 110.000 herritarren sinadurak, ezta azpikontrata publikoetako milaka langile miseriara bultzatea ere. ELAren ustez, LHEaren aurkako jarrera bat dator Confebasken posizioarekin -ELAren proposamena "disparatea" omen da-, eta koherentea da Eusko Jauriaritzaren murrizte politikarekin; gobernuak lehentasuna, beste ororen gainetik, aurrekontuak moztea da, batez ere partida sozialetan.

Heriotza iragarritako baten kronika. Legebiltzarrak azkenean ELAren LHEa baztertzen badu borroka sindikal honek amaiera goibela izango du; bide batez, hasieratik saiatu dira zapuzten. Izan ere, LHEa parlamentura eraman bezain pronto Jauriaritza saiatu zen ez zedila onartu. Gero Bizkaiko Foru Aldundiak ere eztabaida eragotzi nahi izan zuen, eskumen gatazka argudiatuta. Arbitraje batzorde batek, epaile bat ere bere kide zelarrik, derrigortu zuen LHEa Legebiltzarrean aintzat hartzea.

Aurrerago, batzordeko eztabaida fasean, agerian geratu dira legebiltzarkide batzuk ELAren errespetu falta eta aurreriritziak, eta ez dutela errealitate sozial eta sindikalaren arrastorik; nabarmena da LHEa onartzeko ez dagoela borondate politikorik, eta politikoa asko oso urrun daudela ustez ordezkatzen duten gizartetik.

Aukera galdua? LHE hau aukera ezin hobea da hitzetatik ekintzetara pasatzeko. ELAK berriro ere dei egin die Legebiltzarreko taldeei baieztatzeko eman dezaten, eta horrela erakutsi langileen duintasunaren aldeko jarrera. Bitartean, sindikatuak prekaritatearen aurkako borrokan jarraituko du, baita azpikontrata publikoetan ere, eta ez du etsiko LHE hau EAEn Nafarroan bezala gauzatu arte.

EAJko ordezkari batek esan zigun: "badakigu LHE honekin zer nahi duzuen, baina arrazoia ematen badizuegu, ezinezkoa izango zaigu lizitazio prezioak beheratzea". Hots, ezinezkoa litzateke murrizten jarraitzea

AZPIKONTRATA PUBLIKOETAN ENPLEGUA MANTENDU ETA BALDINTZA DUINAK BERMATZEKO LHE-A

ZER DA LEGEGINTZAKO HERRI EKIMEN BAT

Herritarrentzako parte hartzeko modu bakarra da; honen bidez parlamentura eraman daitezke edozein arazo medio indar politikoei aintzat hartu ez dituzten gaiak, edota ekimena proposatzen duenaren kezka. Ikuspuntu demokratikotik, LHEa demokrazia partizipatiboaren adierazpen bat da.

ZERGATIK PROPOSATU DU ELAK EKIMEN HAU?

Lan-baldintzak gero eta okerragoak dira, hainbat murrizketa eta erreformen ondorioz; gauza bera gertatzen zaie herri-administrazioek kontratatutako enpresentzat lan egiten duten beharginei. Baldintza-agirietan gutxieneko bermerik ezartzen ez denez, sektore askotan esplotazioa gertatzen da, eta zerbitsuak egiten dituzten enpresen aldaketak enplegua galtzea dakar; lanaldia murriztuta denean, are ordu gutxiago izatea; lehiaketan ezarritako prezioak beheratzean lan-hitzarmena ez

aplikatzea, edota soldata-eskala bikoitzak, baldintza ezberdinak aplikatzen zaizkielako langile berriei.

Administrazioek arlo publikoko jarduerak azpikontratatu dituzte, guztion dirua baliatuz. Beraz, esparru honetan lan egiten duten pertsona guztien baldintzak beren ardurapean daude, eta gutxieneko eskubide batzuk bermatu behar dituzte. Horrela zerbitsu publikoen kalitatea herritar guztientzako ziurtatuko litzateke. Hartara, ELAK proposatu du lege batean jasotzea administrazioek minimo horiek nola bermatuko dituzten.

ZER PROPOSATZEN DU ELAK LHE HONEN BIDEZ?

Herri-administrazioak behartzea lan-arloko gutxieneko eduki batzuk errespetatzera, zerbitzuen azpikontratazioetan.

Kontratetako langileen lan- eta soldata-baldintzen gainean eragina duten arauak bi dira, batik-bat: hitzarmen kolektiboak eta baldintza-

orriak. Ondorioz, batetik, hitzarmen kolektiboetan ezarritakoa bete behar da, eta bestetik, baldintza-orrietan gutxieneko klausulak eta eskubideak jaso behar dira.

ZER NOLAKO KLAUSULAK ESKATZEN DITUGU?

* Lehenik, enpleguaren galera ekiditea, bermatuz azpikontratetako langileek beren postuan jarraitzeko eskubidea izango dutela (subrogazioa), edozein enpresa aldaketa gertatuz gero.

* Bigarrenik, gutxieneko lan- eta soldata-baldintzak bermatzea. Zein baldintza? Indarrean dagoen hitzarmen sektorialekoak, baldin badago, edota indarrean izan den azken hitzarmenekoak, berritu ez bada.

* Hirugarrenik, berriz, zigorak ezartzea eskakizun horiek betetzen ez dituzten enpresei, edota lanlegedian jasotako eskubideak aintzat hartzen ez dituztenei.

55.000 baino pertsona gehiagoren etorkizuna kolokan

Etxez etxeko laguntzako langileak, garbitzaileak, anbulantziakoak, TAOzainak, gizartegintzakoak, kirol-monitoreak, bisita gidatuetakoak, turismo-informazioko zerbitzuakoak, erakusketa-zentroetakoak, hezkuntza-tailerretakoak, zerbitzu teknikoetakoak... Milaka eta milaka pertsonak lan egiten dute azpikontrata publikoetan —55.000tik gora, sindikatuaren kalkuluen arabera—, hainbestera non batzuek administrazio paralelo benetako bat direla esan duten.

LHE hau, beraz, ez da huskeria bat. Kolokan eta prekarietatean dauden milaka langileren etorkizunari lan-egonkortasuna eta duintasuna eman nahi zaizkio. ELAk ondo daki zertaz ari den. Jarraian adibide "txiki" batzuk adieraziko ditugu salatzen duguna argiago gera dadin.

Obra publikoa: administrazioek %50eraino jaisten dute esleipenen prezioa. Hona hemen ondorioak:

- Hitzarmenak ez dira betetzen.
- Lan-ordua 5 eurotan ordaintzen da.
- Lanaldiak egunean 10 ordura artekoak izaten dira.
- Sasi-kooperatibak ugaltzen dira, gutxiago ordaintzeko, eta Lan Ikuskaritzaren eskuhartzerik ez izateko.

Ezbeharren tasak goraka doaz: Lan-istripu asko gertatzeko arrazoia enpresek prebentzio-neurriak ez betetzea da. Administrazioek ezarritako murrizketak enpresek prebentziotik (zaintza eta kontrola) aurrezten dute.

Enpresak ixtea: Antzibar, Gipuzkoako eraikuntza-enpresa, itxiera-EEE bat aurkeztu du, non hitzez hitz honela dioen: "...esleipenen diru-baldintza bidegabeak direla-eta, ez dugu

lortu obretako bat ere errentagarria izatea". Eta adibide batzuk ere jarri dituzte, besteak beste, Aguraingo Lope de Larrea Institutuko obra, non 286.102,06 euroko galera izan den.

Gasteizko udala:

***Ludotekak eta bilera-gelak:** 80 langilez osaturiko azpikontrata. Estatuko hitzarmenaren eraginpean daude. Lanaldi partzialeko kontratazioa: langile bik edo hiruk bakarrik dute lanaldi osoko kontratua. Baldintza-orrietan proposatzen zaie langileei murrizketa gehiago onartzea, inor ez kaleratzeko.

***Kirol-monitoreak eta sorsleak:** hitzarmenean subrogazioa lanaldi osoko kontratuetarako bakarrik jasotzen da, baina kontratu gehienak lanaldi partzialekoak dira.

Añanako Gatz haranaren Fundazioa (Arabako Foru Aldundiaren menpe): EULENGo langileak hitzarmenik gabe. Langileen Estatutua aplikatzen diete zuzenean. Subrogaziorik ez. Koordinatzaileak bakarrik du lanaldi osoko kontratua; gainerako langileek lanaldi partzialeko kontratuak eta ordu osagarriak.

Zerbitzu teknikoetako langileei (Serykat, Deusto Sistemas, Ibérica, Indra, Axpe Consulting, Idom...). Bulegoetako Hitzarmena edo Ingeniaritza eta Aholkularitza Hitzarmena aplikatzen diete. Subrogaziorik gabe.

Osakidetza: 93 azpikontratazio eremu ezberdin daude. Guztira 82 milioi euro baino gehiago bideratzen dira azpikontratera. 93 hauetatik 49 enpresetan ez dago subrogazio bermaturik, hau langile batzuek badaukate eta beste batzuek ez. Diskriminazioa ahalbidetzen du administrazioak.



BAI lan duintasunari

ELArentzat garrantzi handikoa da Eusko Legebiltzarrak LHEn buruz hartzen duen erabakia.

Gaur egungo gizarte-egoera oso latza da, horregatik sindikatuak oso ondo iritziko lioke gizarte- eta lan-arloetako eskubideei eusteko ahalegin politiko praktikoak egiteari.

Gasteizko Parlamentuak eskumen nahikoak ditu LHEn gainean erabakitzeko.

BAIETZ bozkatzeak babesa emango lieke milaka eta milaka langileri soldatak jaistetik eta lanaren gizatasuna galtzetik.

LHEri baietz edo ezetz bozkatzeak Eusko Jaurlaritzaren benetako enplegu-politika baldintzatuko du.

EZETZ bozkatuko dutenak patronalik atzerakoenaren aldera lerratuko dira. Gure jendeak edozein enplegu-mota, eskaintzen diren baldintzak lazkariak izanda ere, onartu behar duela dioen patronalaren aldera.

Eta guk denok ezagutzen ditugu artez-arte zain miserableak diren baldintzak batzuetan.



EZ DUTE GEHIAGO NAHI SUBROGAZIOA HITZARMENETAN ARAUTZEA

ELArentzat ez dira oharkabean gertatzen alderdi politiko askoren eta enpresa handien arteko lotura estuak. Enpresa horiek, etekinak ugaltzearen, erabaki dute enplegua babesten duen arau oro kendu behar dela. LHEn EZETZ esatean EAJ-PNV, PSE-EE, PP eta UPyD estrategia horretara lerratu dira.

Patronala aurrera-eraginaren amaieraz baliatzen da negoziazio kolektiboan xantaia egiteko, eta era berean traba egiten dieten gai guztiak kendu nahi dituzte. Subrogazioa gai "gogaikarri" horietako bat da.

Eusko Jaurlaritza eta Confebask bat datoz lan-subrogazioa esparru guztietatik kentzeko helburuarekin. Horregatik LHE eragozpen bat da.

VUESTROS BENEFICIOS NUESTRA MISERIA LABORAL

ELA EUSKAL SINDIKATUA

 Yolanda Barcina TELEFÓNICA Regaló la Caja de Navarra (CAN) a CaixaBank (accionista de Telefónica). Puertas giratorias. 200.000 euros anuales. <i>Ex presidenta del Gobierno de Navarra</i>	 Pello Gibelalde ADEGI Gure seme-alabak Txina edo India irauteko bidaiatu behar dira. "eroso" bizi balira.	
 Alberto Garcia Erazukin EUSKALTEL 50 millones de euros de la dirección equivalen a 2.000 empleos cada año con un salario de 25.000 euros.	 José Antonio Sarria CEN Patronal de Navarra Impulsor de redes clientelares en Caja Navarra, peón del régimen y de la jerarquía empresarial.	 Josu Jon Imaz REPSOL 1.500 empleos sustituido por el sistema de beneficios.
 Florentino Pérez ACS Actividades de Construcción y Servicios Bore agintza gobernuaren eskuak eta langileak esplotatzetik eraki du.	 Ignacio Sánchez Galán IBERDROLA Fomenta la explotación. Hasta Septiembre de este año 1.919 millones de euros de beneficios en Iberdrola. 42.000 euros... diarios.	 Gregorio Villalabertía KUTxabank Destruye 2.000 empleos para alcanzar 500 millones de beneficio y privatiza las cajas.



ADOLFO MUÑOZ TXIKI, IDAZKARI NAGUSIA

“Eusko Jaurlaritzari eta Confebaski traba egiten die ELAren LHEak”



Eusko Jaurlaritzari (eta beren interesen alde agintzen duten Confesbaski) traba egiten die Legegintzako Herri Ekimenak, ez diotelako prekarietateari inolako mugarik jarri nahi

-Badirudi Eusko Legebiltzarrak ez duela onartuko azpikontrata publikoetan esplotazioa ekiditeko ELAk bultzatzen LHEa. Zer deritza sindikatuak honi?

-Errealitate gordina da LHE honen alde jasotako 110.000 sinadurak alferrrikakoak gerta litezkeela EAJK, PSE-EEK, PPK eta UPyDK lan-baldintzen gainbehera ez dutelako eragotzi nahi. Auzia ez da legea, ezta eskumena ere, borondate politikoa baizik.

-Zer dela eta ukatzen dute alderdiok ekimen hau?

-Gasteizko gobernuari eta Confebaski LHEak traba egiten die; ez dute prekarietatea mugatzerik nahi. LHEak eskuak lotuko lizkieke lan-baldintzak okertzeko eta aurrekontuak murrizteko garaian.

Alderdi horiek beren erabaki “burujabea” patronalaren interesen eta murrizketen zerbitzura jartzen dute, hots, prekarietatea areagotzeko planaren esanetara. Horixe da hain sarri aipatzen duten “lan-harremanen eredia” eurentzat.

-Beraz, LHEa ez babestea izatez Confebasken alde egitea litzateke...

-Noski. Confebasken ustez ELAren LHEa “disparate” bat da. Patronalak ez du nahi langileei babesa ematen dien araurik. Gero eta malgutasun handiagoa exijitzen du.

Langileok, ordea, beste erreferentzia batzuk behar ditugu, ez patronalak ezarritakoak. Beharrezkoa litzateke arlo publikoan alderdiek mezu argi bat ematea: edozer ez da libre.

Halere, kezkarriena ez da Confebasken gehiago nahi izatea, Gasteizko gobernuak ematea baizik. Amorratu egiten gaitu patronal honek edozertarako babes politikoa izateak, eta milaka langile babes sindikalarekin baino ez uzteak.

ELAk galdera bat luzatu nahi die: Hau ote da Jaurlaritzak aipatzen duen lan harremanen euskal eredia? Eredua hau, non enpresei aukera ematen zaien, inolako arau minimorik gabe, lan-harremanak oihaneko lege bailiran ulertzeko? Hori ez da gure eredia.

-110.000 herritarren babesa izan duen ekimen bat ezerezean utzi izana da argigarria da batzuren demokrazia kontzeptua zein den ikusteko...

-Hala da. Legebiltzarrean eztabaidara onartu izan diren LHEen artean gurea da sinadura gehien lortu duena. Haatik, bere ibilbidean oztupoak besterik ez ditu topatu.

Alderdi batzuk ez dute nahi parlamentutik kanpora gaudenok gardentasuna exijitzea, ezta erabaki jakin batzuk har ditzaten eskatzea ere.

-Politika esparru pribatua al da?

-Esanekoa da botere ekonomikoarekin, eta eraso-orko jokatzen du langile-klasearekin.

Eurentzat “demokrazia” alderdietan hasi eta bukatzen da. Edozertaz hartzen dituzte erabakiak, beste inori parte hartzeko aukerarik eman gabe. Uste dute aski direla eurak guri zer komeni zaigun erabakitzeko. Hau betiko politikaren beste aldaera bat da.

Ez dute nahi jendea antola dadin; are gutxiago, antolatzeke jendeak sindikatua hautatu eta kontrolpean jarri ezin badute.

Gasteizko gobernuaren gaitzespena baino ez dugu jasotzen krisiak gehien jotako defentsan aritzen garen antolakundeetan

Sindikatuaren lanik garrantzitsuen langile horien antolaketara bideratu beharra dago

Gasteizko gobernuak mespretxuz hartzen ditu krisiak gogorren jo dituenen defentsan dihardugun erakundeak.

Sindikatuaren ardura da beste oreka bat bilatzea, zeinetan gure jendearen eskubide eta helburuak aintzat hartuko diren; horretarako borroka beharrezkoa da.

-Hemendik aurrera, zer egin behar da?

-Ez gara salaketa publikoarekin konforme geratuko, hori ere ezinbestekoa izanagatik. Mezu nagusia, beste ororen gaitetik, antolatzea, mobilizatzea eta borrokatzea da. Antolatzen bagara egungo politikak eta status quo-a mugiarazteko aukera izango dugu.

Sindikalismoak, gure ustez, ez du astirik galdu behar edukirik gabeko mahaietan; mahai hauen xedea da guretzako denborapasa izatea, bitartean gobernuak patronalaren aldeko erabakiak hartzen dituztelarik.

Mugimendu sindikalak ez badu kontraboterearen eginkizuna hartzen, oraingo egoeran ez du beste inork hartuko.

-Azpikontrata publikoetako langileen baldintzetan ezarritako administrazioen murrizketek nolako ondorioak dituzte?

-Praktikan dakarrena hitzarmen kolektiboak ez betetzea da. Muturreko kasuak obra publikoetan gertatzen dira. ELAk salatu izan duenez, Gasteizko gobernuak esleituriko zenbait obratan lanaldiaren iraupena egunean 10 ordukoa da, eta 5 euro orduko ordainduta.

Areago, eraikuntza-sektoreko enpresa batzuek, hitzarmena aplikatzen dutenek, zapalkuntza-baldintza horiek zabaltzeko arriskuaz ohartarazi dute. Prekarietateak prekarietate gehiago erakartzen du. Eta arrisku hori saihestu nahi dugu. Gogoan hartzekoa da, halaber, lan-ezbeharren tasaren igoera. ELAk hainbatetan salatu du lan-istripu asko gertatzeko zergatia segurtasun-neurriak ez betetzea dela. Izan ere, administrazioek ezarritako murrizketak istripu-prebentzioaren zaintzaren eta kontrolaren kontura doaz.